

JOSÉ ELIZONDO




ATZETORKIA

JOLAS-TXOLARTEA

DONOSTIYAN

JOAKIN BAROJA'REN ETXEA

ATV
17016



N.M. 3032
R. 34916

R-3078
ATV
17.016

«ATZETORKIA»

JOLAS-TXOLARTEA

JOSÉ ELIZONDO-K

IDATZIA

IRULDE-KOITZ BAKARRA



IRULDARIAK:

ANDRE SINFOROSA

KATALIÑ

ON LESMES

MAIXUA

JOAKINTXO

KAXKO

LENDABIZIKO IRULDE-ALDIYA

Iruldegiak, etxe-barrunpe oneretzi bat iruldatuko du;
etxera-sarrerrako ate bat eta alboetan gelatiak ditula,

ANDRE SINFOROSA ta ON LESMES

SINFO. Gezurra dirudi.

LESM. Ez da, baña; jakintsu guziak orretan daude; atzetorkia gauz miragarria da.

SINFO. ¿Nola izan diteke, baña?

LESM. Adi zazu: Makatza txertatzen degu:

SINFO. Txertatzen degu.

LESM. ¿Gero zer dator?

SINFO. Txertatzen zayon igaliaren edo frutuaren antzerako emakia

LESM. Atzetorkia ori da. Gure eskola-maisuak dionez, gizonaren txertu jatorra «plasma» da.

SINFO. Kataplasma esan naiko dezu.

LESM. Ez kata, ta ez katu; plasma uts-utsa, baizik. Plasman txertatzen gera, ta, txertua nolako dan, frutua, alako izaten da. Aita ta ama nolako, seme ta alabak, alako.

SINFO. Ori, len ere bageñiakian. Aita arra, semea ere, arra; ta alaba, ama bezela, emea.

LESM. ¡Ta... ta... ta! Ez emakumea, ez, ori ez da,

SINFO. ¿Zer bada?

LESM. Aita ta ama onak badira, seme ta alabak, onak izango dira, ta...

SINFO. Txarrak baldin badira.

LESM. Txarrak.

SINFO. Gure illoba, gure Joakintxo, beraz...

LESM. Gure Joakintxo, buruz argiya izan bear dula, nai ta nai ezkoa da; beztela, atzetorkia zertarako lizake?

SINFO. Zurionezko atzetorkia dalata, jakintsuetan jakintsuena izango ez danik esan ezin diteke, beraz.

LESM. Bere aita zana, eskola-maixuetan argiyentxuena zan:

SINFO. Esango nuke.

- LESM. Ta gauza berriyak armatzen...
- SINFO. Bezterik ez bezelakoa.
- LESM. ¿Arek asmatuko etzunik al zan?
- SINFO. ¡Bai zera!...
- LESM. Azkenengo asinatu zuna, arratoyak arrapatzeko mijiro bat izan zan.
- SINFO. Gogoratzen zait, bai; bere arekin egin zun garbitazuna, ikusgarria izan zan.
- LESM. ¡Gauzaren miragarria! Olluen gantza urdai azpikoakin nasten zuan ta, arratoyeri azetzerano jaten usten zien; gero, arratoya puxiga bezela pustutzen zanian, ta ibilli ezin zitekeala ikusten zunean, gure Exekiel, ek, tenasakin joan ta ¡kask! eltzen zion ta ¡kaxo bapo!
- SINFO. ¡Gauzaren zoragariya!
- LESM. Arelako aita baten semea, ¿zer izango da?
- SINFO. Sagua.
- LESM. ¿E? Zer ezan dezu?
- SINFO. Argiya... biziya, esan nai nuke.
- LESM. Aita beintzat...
- SINFO. Guztizkoa zan.
- LESM. Eguzkiaren dizdira bezelakoa. Buru-auste geyegiak eram zuan.
- SINFO. Alada, izan ere.
- LESM. Orain ere, begien aurrean daukat.
- SINFO. Nik ere bai begi-ederdikoa zan.
- LESM. Matrallak, sagar gorriya baño gorriyagoak zeuzkan...
- SINFO. Ta gorputza ¡Ai gorputzaren!..
- LESM. Ez, gorputzez ain egokiya etzan.
- SINFO. Potxolo potxolua.
- LESM. Ta trokotx-antzerakoa.
- SINFO. Trokotx antzerakoa izanak ¿zer dauka? Gauze guziak, ederrez beidiñ ez-bait-dira.
- LESM. Arpegian, orein polit bat ere bazeukan.
- SINFO. ¡Gauz inbirigarriya!
- LESM. Ta oreinaren erdi-erdian, iru ille luze-luzeak zeuzkan.
- SINFO. Egiya da.
- LESM. Zurda bezelakoak.
- SINFO. Jayotzekoak zituan.

- LESM. Antiparrak, andik lotzen zituan.
- SINFO. Burutsua zala, begien aurrean dago.
- LESM. Ikaragarriya! Joakintxo berpera.
- SINFO. Gaurko albizez, aitaren semea dala, ongi erakuzi digu. Benazko atzetorkia, orretan dago. Albist ori artu degun ezkerotik zoratu bear zait.
- LESM. Gutxiragoko ez da.
- SINFO. ¿Nun daukazu? Irakur idazu.
- LESM. (*Paper bat aterantzen*). Ona emen nun daukatan.
- SINFO. Ea, ia bada, gizarajo orrek.
- LESM. (*Irakurtzen da*). Esamiñak egin ditugu; ni ondo.
- SINFO. ¡Au zoriona! Ondo, ondo atera zaigu.
- LESM. Ongi erten digu. ¡O atzetorkiaren miragarria!
- SINFO. Berriz, berriz irakur zaidazu; aditzez aspertu eziñik naukazu.
- LESM. Tira bada (*irakurtzen du*). Esamiñak egin ditugu; ni ondo.
- SINFO. Ori da. Ni ondo, zu ondo bera ondo; guziyak ondo.
- LESM. Etorri dediñean arrera on bat egin bear diogu.
- SINFO. Orixe bai, bezteri ez bezelakua.
- LESM. Baskari on bat maneatu bear diozu.
- SINFO. Astuta ez daukat; olanda esparraguak eta altxofaltxuak zukaldean dauzkat.
- LESM. Altxofaltxuak zertzuk dira?
- SINFO. Nola adiraziko dizutan ere ez dakit; gauza potxolo koskatu batzuk dira.
- LESM. ¿Alkatxofak esan nai aldezu?
- SINFO. Orixe; nik zuk bezela esaten ez dakit.
- LESM. Ikasi zazun, bada; al...ka...txo...fak.
- SINFO. Bai gizona, bai; len ere aditu dizut.
- LESM. Ya bada.
- SINFO. ¡Ori ollandaren guriya daukat: Gure Joakintxo lengua bada....
- LESM. Lengua izango alda nunbait.
- SINFO. Matrallak aundi-aundi eginta, ezurretarañoiko guziak jango ditu.
- LESM. Ongi egingo du.
- SINFO. Baña, orain gagoratzen zaitala, arrairik ez daukagu, eta Joakintxo, guztiz arrai-zalea da.

LESM. Arrayagatik keskarik gabe egon zindezke; arrai bat eta bi ere, laister ekarriko ditugu.

BIGARRE NIRULDE-ALDIYA

LENGOAK ETA KATALIÑ

- LESM. (*Erdiko atetik deika*) ;Kataliñ!
KATA. (*Barrutik*) Jauna?
LESM. (*Sinfori*) Nai dezazun aña arrai, etxian laister izango dezu.
SINFO. Orrela baldin bada, gure gaurko baskariya jai zer nolako izango dan!
KATA. (*Atetik*). ¿Jauna zer nai zidan?
LESM. Arrantzarako kanabela ta arrai-otarra ekaizkidatzu.
KATA. Berialaxe, jauna.
LESM. Lastosko txapela ere bai.
KATA. Bai jauna (*Erdiko atetik dijoa*).
LESM. Gaurko mariajiakin arainaikoa, arrapu eziñik ez daukat.
SINFO. Al-baldinbadezu izokiya arrapa zazu.
LESM. Daramadan amuzkiyakin izokiya errez arapatuko det, izoki bera baño gozoago da ta, eztiya dirudi.
SINFO. Izokiya atxitu ezin badezu, lupi aundi samar bat ekarrazu; gure Joakintxo lupi zalea dala badakizu.
LESM. Zuk nai dezuna; lupiya nai badezu, lupiya, ta izokiya nai badezu, izokiya; zuk nai dezazuna.
SINFO. Biyak ekartzen badituzu, obe izango da.
KATA. (*Erdiko atetik, kanabela, otarra ta lastosko txapela dakazkiala*). Jauna, eskatu ditunak ona emen nun datuzkan.
LESM. (*Artzen dizkiola*). Au giroaren ederra! Ariayak gozez amorratzen daudela jakiña da ta nere amuzkiakin zoraraziko ditut.
SINFO. ¡Gizarazuak! (*Lesmes, kanabela bizkarrean ta arrai-otarra hesoan ditula ta txapela jantzirik, erdiko atetik joaten da*).

IRUGARREN IRULDE-ALDIYA

SINFOROSA ta KATALIN

- SINFO. ¿Kataliñ, maixuari albist-egin al-diozu?
- KATA. Bai andria, ta Joakintxo ikusteagatik pozez zoratzen dagoala esan dit.
- SINFO. Ziñezten det; gure Joakintxo maitagarri da, izan ere.
- KATA. Maixuak esan dunez, guztiz azkarra dala dirudi.
- SINFO. Orixe bai; buru galanta baldin badu ere, premiyan dago. Onezkeroz, liburutako izki guziak ilintxi ditu.
- KATA. Izkiak zertzuk dira?
- SINFO. Letrak.
- KATA. Baña, etxekoandrea, burua orrenbezte nekatzeak on-egingo al-dio?
- SINFO. Jakiñak, jakin bearrik ez dauka, ta gaurko egunean, bizitzen gaitz da; denpora batean, iru ta bi lau zirala jakinta bezterik gabe, alkate edo iskribau izan zitekean baña gaurko egunean, Santzonek aña jakinta ere, maukarik txikiena arrapatzen gaitz dago.
- KATA. Eta ori, ¿zerengatika da?
- SINFO. Mundua, berriztaratuaz dijoalako; atzo, gauza zan trezna batek, gaur ezertarako balio ez du; nere gazte denporan odolkiak, atzaparrekin sakatuaz betetzen ziran, ta gaurko egunean, indarrakin betetzen dituzte.
- KATA. Bai noski, len ere indarrik gabe beteko etzituzten.
- SINFO. Indarra zer dan ez dakizu.
- KATA. ¡Bai zera! Jakingo ote det, bada.
- SINFO. Indar berriya, esan nai dizut.
- KATA. ¿Berririk alda, gero?
- SINFO. Bai, emakunea; argi egiten dun indarra.
- KATA. ¿Kristillustika?
- SINFO. Orixe; gure maixuak, bezte izenik ez dagokiola dio.
- KATA. Dana dala; makiña bat orrelako asmatzen dute.
- SINFO. ¿Orrenbezte kalbo zergatik ikusten degula uste dezu?
- KATA. Illea erortzen zaleyako.

SINFO. Burua geyegi austen dutelako; gure maixuari begiratu baizik etxayo.

KATA. Bai, bai; kalbo galanta dauka, txapela erasten dun guzian dizdiz egiten dio.

SINFO. Burua, jakinduriaren ixpillu dala ez al-dakizu?

KATA. Orrenak beintzat ixpillu-antza badu.

SINFO. Bezte gauzik ere gogoratu bear zaizu.

KATA. Zer?

SINFO. Ollanda nola daukazu?

KATA. Kaxuelan sartuta, sutan daukat.

SINFO. Zoaz, badá, ta ongi erre dediñean, esparraguak eta altxo-faltxuak sartu egizkiozu.

KATA. Ongi da. (*Erdiko atetik joatenda*).

LAUGARREN IRULDE-ALDIYA

SINFOROSA bakarrik

¡Au zoramena! Esteyetan banengo bezela nago. Ollanda, izokiya lupiya ta Joakintxo. ¡Nere atsegiñerako zenbat gauza! Baña orain gogoratzen zait eta, zer postre egin bear dun esan ez diot. (*Erdiko atera joan ta deitzen dula*) ¡Kataliñ!

KATA. (*Barrutik*). ¿Andria?

SINFO. Prosterako aya egin zazu.

KATA. (*Barrutik*). Bai andria.

SINFO. Edo ez, ez; urdiña, edo burdiña esaten dioten ori egin zazu.

KATA. ¿Gazta bezelako ori?

SINFO. Bai.

KATA. Arrautzakin kaikuan egiten dana?

SINFO. Berorixe.

KATA. Ongi da.

SINFO. Gure Joakintxo gizarajoa! Umearen maitagarriya! Bere aita zana, begira balegokio jay! aren atsegiña. Zorionezko atzetorki ori eman zionik, asko uzte gabe il zan. Asma, pasma dalako ori, gauz arrigarriya da, izan ere. Neronek ere badaukatala nabaitzen det. Nun daukatan ez dakit, baña, nunbait izan bear detala antzematen diot.

BOSGARREN IRULDE-ALDIYA

SINFOROSA ta MAIXUA

SINFO. (*Ateko zintzarrien otsa aditzen dala*). ¡Ene, enetxua! Gure maixuaren deya da, seguru asko. (*Erdiko aterutz dijoada*). Bera da, bai; nere asma, edo pasmak adirazi dit.

MAIX. (*Erdiko atetik*). Andre Sinforosa: Ongi arkitua izan zaitela.

SINFO. Gure maixu jauna, ongi etorriya, milla bider ongi etorriya izan dedilla; zuzen zatoz.

MAIX. Zuzen ta pozik; nere ikaskoi maitea besoetan estutzera ta zueri arazo xistor bat ematera.

SINFO. Exeri zaitea, exeri zaitea.

MAIX. (*Etxertzen dala*). Eta Joakintxok zer berri bidali dizute?

SINFO. Ona zer diyon: Examiñak egin ditugu; ni ondo.

MAIX. Ederki.

SINFO. Ederki ez; ondo, ondo diyo.

MAIX. Bai, bada.

SINFO. Aurki emen izango degu, ta bere etorreragarik, etorri zaitela albist-egin dizut; gurekin baskalduko dezu.

MAIX. Poz aundiagorik ezerk eman ez dit.

SINFO. Ziñezten det.

MAIX. Mutill askarragorik, jayo ez da. ¡Ai aren burua!

SINFO. Aundiya.

MAIX. Ta argiya.

SINFO. Esango nuke. Bitorira joan aurrez ere, asko zekian; gobareren kontua, ikatzarena, eznezaliena, ta etxean ziran guzienak, berak eramaten zizkidan ta bein bakarrik uts-egin zuan; bere artan, amar atorra idatzi bearren, amar milla idatzi zun.

MAIX. Ori gauz utsa da; neronek ere bezte orrenbezte egiñ izan det, ta ori, maixu naizelarik.

SINFO. Neron aipatu dezun ezkerok, ¿zein izan zan esango aldirazu? Bezte beñ ere, jaun orrekikoz, zerbait esan ziñidan, baña gogoan ez daukat.

MAIX. Neron, flauta jotzalle zan.

SINFO. Flauta jotzen zuan, beraz?

- MAIX. Bai, ederki alere.
SINFO. Ereslari ona, beraz.
MAIX. Yayua; goizean goiztik, leyoan jarrita flauta jotzen ekiten zion kalean zijoazen guziak dantzan ipintzen zituala.
SINFO. Orra beraz.
MAIX. Alako batean, alkatearen semea dantzan ipiñi zun ta mutillari, erorita, txumbo aundi bat egin zitzayon.
SINFO. ¡Gizirajoa!
MAIX. Arezkeroz, alkatiak etxean flauta jo zezala galerazi ziolako, mendira joanta, belar preskua janaz ta txistua joaz bizi izan zan.
SINFO. Ta neguan... belar preskorik etzeukanean?
MAIX. Pagotxa zunean pagotxa; allorbia zunean allorbia, edo prantzez belarra; aukeratzen zitzayona.
SINFO. ¡Gizirajoa!
MAIX. Gizona, arima salbota, aberea bezelako da; edozertara jarkitzen dana; gezurra badirudi ere, belarr utsa jan bear lutekeanak asko dira.
SINFO. Ni beintzat, belarr utsakin biziko ez nintzake.
MAIX. Zu, emakume zera, baña, ta nik, gizonetik esan det.
SINFO. Sukaldean maneatzten daukadan ollanda guriya, belarrik onena baño nayago det.
MAIX. Noski.
SINFO. Eta nere senarrak ekarri bear ditan izokiya. ¡Ikusgarri izango da!
MAIX. Izan dedilla, bada.

SEIGARREN IRULDE-ALDIYA

Lengoak, ON LESMES eta KASKO; gero KATALIÑ

- LESM. (*Barrutik ojuka*). ¡Sinforosa, Sinforosa!
SINFO. Izoki izugarrien bat badakar.
MAIX. Deadarrak diran añekoa baldin bada, galanta izango da.
(*Sinforosa eta Maixua erdiko aterutz dijoazela, On Lesmes, buxti-buxtia, ta otz-ikaraka, Kaxko honbero totelak besotik elduta dakarrela azalduko da*).

- LESM. ¡Sin...sin...forosa!
- SINFO. ¡Ene Jainko maitea! Gizonaren planta, au alda?
- LESM. I...izoki ederra arrapatu det.
- MAIX. Baña, On Lesmes, ¿zer gertatu zaizu?
- KAXKO. Zurriolako arroka tartian arrapatu degu kra...kra...kraba-
arroka bez...bezela.
- LESM. Izokiya arrapatu bearrean, ni atxitu naute.
- SINFO. Baña, nere senar maitea, planta orretan...
- KAXKO. Orrenbeztean ekarri dizugunean po...pozik egon zindezke;
plan...plan...planta txarragoa zeukan arroka tar...tar...tar...
tarteant.
- MAIX. Baña, zer gertatu da?
- KAXKO. Zer gertatuko zan...zan...zan...zan...
- MAIX. Berak itzegin dezala.
- LESM. Ona bada. Joan ta bereala, petrill gañean exeri naiz, ta
arrantzan ekin diot. ¡Arrapatu bear eriyogarria!
- SINFO. Izan ere.
- LESM. Euskeraz, «palangria» esaten zayon aparejua bota det.
- SINFO. Bai... ta?
- MAIX. Eta?
- KAXKO. E...e...e...ta
- LESM. Eta amuzkiak uda ikutu dunerako, arrai izugarri bat.
- SIN. ta LES. ¡Izugarria!
- KAXKO. ¡Ta...ta...ta...!
- LESM. Balia zala uzte det.
- KAXKO. Zer izan bear zun arrokan...kan...kan...kan...
- SINFO. Utsi zakitza. (*Kaskori*).
- MAIX. Ixillik egon zaitea. (*Kaskori*).
- LESM. Neri, balia iruditu zait.
- SINFO. Ala izango zan bai.
- MAIX. (*Kaskogatik*). Onek zer daki?
- LESM. Esan detan bezela, amuzkiak uda ikuta dunerako, ¡kask!
amuan trabatu zait eta berak ¡tenik! ¡ni! ¡jora!...
- KAXKO. O...o...o...ra pro...pro...nobis.
- LESM. Azkenerako... ¡ai!
- SINFO. Zer?
- MAIX. Jakiña balia nagusi.
- LESM. Buruz bera, an noala.

- SINFO. Buruzbera, gañera?
- KAXKO. Ez; az...az... azpira.
- LESM. Aimari bat esateko betarik ere eman ez dit.
- SINFO. Krobeta berriya ere ziara ondatu dezu.
- MAIX. Lepua ondatu ez dunean pozez balegoke.
- SINFO. Eta gero?
- LESM. Andik aurrerakorik gogoratzen etzait; jaun onek jakin lezake. (*Kaskogatik*).
- KAXKO. Nik, nik da, da, dakit. A...
- LESM. ¡Atxis!
- SINFO. ¡Ene senar gaixua; buztitzeak onik egiñ ez dizu.
- MAIX. Badirudi.
- LESM. Au kresalaaen garratza; gutxieneko iru pitxarka edan ditut.
- SINFO. Zu orrela, ta ni, baskaritarako izokirik, gabe, ederki gaude.
- MAIX. Neroni ere gaizki nago.
- SINFO. Neronek ere negar egingo luke.
- KATA. (*Atetik, oso larriturik*) Etxekoandre au lana, au zorigaitza!
- SINFO. ¿Zer da?
- KATA. ¡Erre... erre...!
- SINFO. ¿E?
- KAXKO. ¿Zer erretzen da? Sua nunda?
- KATA. Ollanda, ollanda kixkali zait.
- SINFO. Jesus milla bider. ¡Ai nere ollandaren errukaria! Baña emakumea ¿zeri begira egon zera?
- KAXKO. Ka ...ka...lendarioari.
- KATA. Ez bada; txoriari jaten ematen ari nintzala erre zait.
- SINFO. Gure baskariari agur egin genezayo; izokirik ez ta ollanarrik gabe gelditu gera. ¡Maixu jauna, au atsekabea! Orain-txe bai belarra jan bearrean gaudela.
- LESM. ¡Atxis!
- MAIX. Gizon au erropez aldatu bearko degu, bezlela txakurren sudurra baño otzago geldituko zaigu.
- SINFO. Egiya diozu; erropez aldatu dezagun.
- KATA. ¿Laguntzea nai al du?
- SINFO. Ollandari laguntzera joan zaitea. (*Kataliñ erdiko atetik joatero da*). Nere senar gizarajoa, izokitara berriz joan bearizaten dezunerako kontuz ibilli zindezke.
- LESM. ¿Ni berriz izokitara? Egun ori ikusirik ez daukazu. Emen-

dik aurrera, bariak arrapatzen sayatuko naiz. (*On Lesmes ta Sinforosa ezkerreko adetik dijoaz*).

ZAZPIGARREN IRULDE-ALDIYA

MAIXUA ta KAXKO

MAIX. Lesmes gizarajoa! Orrela erori, orrela. Zuk ongi ikusiko zendun noski.

KAXKO. Ikusiko ez nun bada? Amua arro...kan,..kan...kan...

MAIX. Bai, arrokan kan trabatu zayo.

KAXKO. Ta, batek tesa, beztzeak teinka, askenerako san. . san... san...san...

MAIX. San Juau.

KAXKO. San...san...san...san...

MAIX. San Pedro.

KAXKO. San...san...san...san...

MAIX. Santa Barbara.

KAXKO. San...san...sanbulla.

MAIX. Egiya da izan ere santu orren izena gogoratzen etzitzaidan

KAXKO. Erortzen ikusi dun batek deitu digu, ta tximista baño azkarrago joan gaitzayo.

MAIX. Arraldera?

KAXKO. Bai; Zurriolako arraldera; burua uretan zartuta, zan... zan

MAIX. ¿Zanbulla?

KAXKO. Zan...zankuak aidean zituala komeriyak egiteko so...so...so.

MAIX. ¿Zoriyan eta itxaso...so...so... (*Berekauz*). ¿Au zer da? Ni ere toteldu naiz.

KAXKO. Itxaso...so...so..

MAIX. Itxasoan ur asko zegoala esan nai dirazu. On Lesmes erori dan tokian ere bai, noski.

KAXKO. Utsa; maria bean zan...zan...ta gerrirañoako udik etzan tzan...tzan...tzan...

MAIX. Orri ezkerrik.

KAXKO. Ikusi degunean, aitaren seme orduko joan gaitzayo ta katuarraya baña belaxkago arro...arro...arro...

MAIX. ¿An ene arro al zan?

KAXKO. Arrokartetik atera degu.
MAIX. Abejon deizutela.
KAXKO. Kra...kra.. kra...ba bezela a...a,...a...rro...ka zu...zu...lo...lo...
an sar...sar...tuta zegon.
MAIX. Ta...ta...ta...zuek atera dezute.
KAXKO. Le...le...lepo sa...sa...samarretik el...el...elduta.
MAIX. Le...le...le...le go...go...rre...ra.

ZORTZIGARREN IRULDE-ALDIYA

Guziak

KATA. (*Erdiko atletik lasterka sartzen dala*). (*Deika*). ¡Nagosi!
¡Etxekoandre!
MAIX. ¿Zer da?
KATA. Joakintxo badator.
MAIX. Nere ikasle argiya badator beraz. ¡Zorionean izan dedilla!
KATA. Leyotik ikusi det.
MAIX. Zuaz bada, ta atea ereki zakitza, nik, birartean, osaba-
izebari deituko diet.
KATA. (*Erdiko atletik joaten da*).
MAIX. (*Ezkerrekora joan ta deitzen du:*) ¡Lesmes! ¡Sinforosa!
SINFO. (*Barrutik*), ¿Zer da?
MAIX. Joakintxo etorri dala.
SINFO. (*Barrutik*). ¿Joakintxo?
MAIX. Bai.
SINFO. (*Ezkerrekotik, azalduaz*). ¡Ai, au poza! ¡Au zeruaren
ederra! ¿Nun da? ¿Bera nun da?
MAIX. Orain dator; Kataliñek leyotik ikusi du.
SINFO. ¡Gure Joakintxo! Nere illoba maitea!
MAIX. Bai; gure ikaskoi miragarria badatorkigu.
KAXKO. Zo...zo...zorionean i...i...i... zan...zan...zan.
MAIX. Isillik zaude; zantzar bearrik ez deguta.
SINFO. Pozaren, pozez, zoratu bear zait.
MAIX. Neronek ere, biotza trixkuka daukat.
KAXKO. Ni...ni...nik ez.
KATA. (*Barruan dasala*). ¡Joakintxo!

- SINFO. Emen degu! Emen degu!
- KAXKO. Emen ez; es...es...eska...ka...lletan...tan...tan...tan.
- MAIX. Len zantzarra, ta orain tamborra. Ederki gaude!
- JOAK. (*Erdiko atetik azaltzen dala*).
- SINFO. (*Berarengana dijoala*). Joakintxo! Nere illoba maitea, isebaren bezoetara atoz, atozia.
- JOAK. (*Bildurturik, exertoki baten atzean eskutatu nai dula*). Bai...bai.
- SINFO. (*Ezkerreko atean oju egiten dula*). ¡Lesmes! Atoz, azkar atoz; Joakintxo emen deguta.
- LESM. (*Barrutik*). Zaude, emakumea, zaude, oraindik aldatu ez naiz.
- SINFO. Ajolik ez dio; zauden bezela irten zaitea, atoz. (*Joakintxori*). Ai ene Joakintxo, au poza ematen didazu. Au zoramenal!
- JOAK. Bai...bai...
- LESM. (*Ezkerrekotik ertetzen dala, ta maindire batean bilduta*).
¿Nun da, nun da?
- KAXKO. Oi! Du...du...dubende... ja...ja...torr...torr...torra!
- MAIX. (*Kaskari*). Ixo!
- SINFO. Begira, gure Joakintxori begiri zakitza.
- LESM. Begira nagokio; pozturik ikusten det.
- MAIX. Atsegiñez beterik.
- KAXKO. Be...be...beterik.
- SINFO. Bere matrall gorri-gorriekin.
- LESM. Len bezelaxe.
- MAIX. (*Joakintxori*). Nere ikaskoi txit argiya, ongi etorriya izan zaiteala.
- JOAK. Ez...kerr...ik... ba...baña... nik...nik...
- SINFO. Illoba maitea ¿zer dezu?
- JOAK. Zera... nik... nik... zera...
- KAXKO. ¡Kon...kon...kontxo! A...a...au ere, to...to...totela de...degu.
- MAIX. (*Kaskari*). Ixilduko ote zera...
- JOAK. Nik...nik...ori...
- SINFO. Ai ene! Itza galdu du; izketan astu zayo.
- LESM. Aitari bezela. (*Maindiria, uzte gabea tarterekitzen dula*).
- SINFO. (*Lesmes*). Baña gizona; lotza pixka bat euki zazu; ongi estali zaitea.
- LESM. ¿E? A bai, bai; aitari bezela, aitari bezela, itza galdu zayo; onenak egin du; buru auste geyegiak txautu du. Atzetorkiaren izana emen daukagu.

- MAIX. Bai; gurasoak aurarari eraizi (infundir) oi-dion adurra.
- SINFO. Adurr gaiztoa; aurraren galgarria. (*Joakintxori*). Baña nere ilioba maitea zer dezun esango aldiguzu?
- JOAK. Zera... esa...esamiñetan... esamiñak...
- MAIX. Egin ditugu.
- SINFO. Egin ditugu.
- KAXKO. E...e. e...
- MAIX. (*Kaxkori, aboan eskua ipintzen diola:*) Ixi!
- SINFO. Ni... ondo.
- MAIX. Ondo.
- JOAK. Bai... ni...ondo; baña... esamiñetan... gaizki.
- SINFO. {
- MAIX. { ¿Gaizki?
- LESM. {
- SINFO. (*Lesmesi, beronek mandiria berriř ere tarterekitzen dulako*).
Baña, gizona, ¿lotza noizko dezu?
- LESM. (*Joakintxori*). ¿Ni ondo, zergatik esaten zendun, bada?
- JOAK. Bai; esamiñetan gaizki, baña, ni ondo.
- SINFO. {
- MAIX. { ¿E?...
- LESM. {
- JOAKO. Ondo jan, ondo ibilli, ondo lo-egin, ta...
- SINFO. Ondo jan, beraz? Maixua onek bai belarr utsa jan bear lukeala.
- LESM. Euzkeraz, «osterako» ongi esana litzake. Postre ederra ekarri digu.
- MAIX. ¡Bikaña!
- KAXK. Ka...ka...kalabasa.
- SINFO. Bai; ollanda ta izokiaren ordañez, kalabasa; galanta alere.
- LESM. (*Jendeari*).

Kalabasakin degu egingo afariya

Joakintxok ekarri dun jakin sariya,

Obe genduke balitz ollanda guriya

Edo lupikiya;

Orain esan zazute guziok egiya;

¿Gustatu al zaizute ATZERTORIYA?

